



**ERKIDEGOEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA ETA BERARIAZKO OINARRIAK, ETXEBIZITZEN ERAIKINAK ERAGINKORTASUNEZ BIRGAITZEKO LASARTE-ORIAKO BASAUNDI BAILARA AUZOAN, BANAKAKO EBALUAZIOAREN ARAUBIDEAN**

## 1. Araudi erregulatzaileria.

Deialdi honen xede diren dirulaguntzen emakida hauen arabera arautzen da:

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- Lasarte-Oriako Udalbatzarrak onetsitako Dirulaguntzak Emateko Ordenatza Arautzaileria (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALAREN 75. zk., 2017ko apirilaren 20koa)
- Dirulaguntza arautzeko oinarriak deialdi honetan jasota daude.
- Euskal Autonomia Erkidegoko gobernu-kontseiluak 2018ko abenduaren 18an hartutako erabakia, zeinaren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen zaion Lasarte-Oriako Udalari, Lasarte-Oriako Basaundi Bailaran hiri-berroneratzeko eta eraikinak birgaitzeko jarduketak finantzatzeko.

## 2. Dirulaguntzaren xedea.

Oinarri hauen xedea da Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) Basaundi Bailara auzoko etxebizitza-eraikin batzuk erabat birgaitzeko dirulaguntzen emakidaren baldintzak erregulatzeari; hauek dira eraikinak:

Basaundi Bailara 01., 02., 03., 04., 05., 06., 07., 08., 09., 10., 11., 12., 13., 14., 15. eta 16. zenbakiak.

## 3. Dirulaguntza zein aurrekontu-kredituri egotziko zaion, eta kreditu erabilgarriei egotziko zaizkien dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa, edo, bestela, dirulaguntzetarako zenbat diru erabiltzea zenbatetsi den.

Dirulaguntza horien finantzaketa Udalaren 1.875.500,00 €-ko ekarpen ekonomiko baten kontura egingo da, hiru urtez (2019, 2020 eta 2021), eta urteko gehieneko ekarpena taula honetan jasotakoa izango da:

Urtea	Urteko gehieneko kopurua (*)	Partida
2019	901.100,00	1.0802.780.01.15100
2020	622.000,00	
2021	352.400,00	

Aurrekontu-kreditua amaitu ondoren erantzun gabeko eskabideak badaude, eta organo eskudunarekin hala adostuz gero, dirulaguntzetarako aurrekontu-partida handitu ahal izango da, ebatzi gabekoei erantzuteko.



#### 4. Aintzat hartutako birgaitze eraginkorreko jarduketak.

Deialdi honen ondorioetarako, birgaitze eraginkortzat hartuko dira jarraian adierazitako jarduketa guztiak barne hartzen dituztenak; horietako batzuek laguntzak jaso ditzakete.

- a) Egitura- eta eraikuntza-alderdiak egokituta ez dauden eraikinetan, barne hartuko dira, nahitaez, Eraikinaren Ikuskapen Teknikoak eskatutako eta gomendatutako esku-hartzeak; aipatutako txostena teknikari eskudun batek idatzi beharko du, dauden eredu ofizialen arabera, EAEko Etxebizitzetarako Legearen (3/2015 Legea) 52. artikulua derrigortzen duenez.
- b) Etxebizitzek bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituztenean (baldintza horiek 2002ko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuaren IV. Eranskinean eta Eraikuntza Antolatze Legearen 3. artikuluan jasota daude), eraikinak bizitzeko moldatzea bermatuko duten antolamendu espaziala eta ezaugarri konstruktiboa izatea eskatuko da.
- c) Iggogailuak ezartzea eta arrapalak eta etxebizitzaren irisgarritasuna bermatzeko beste edozein obra egitea, ez dadin egon koskadun mailak saihesteko beharrik.
- d) Eraikinaren inguratzaile osoa (fatxadak, estalkia, hegala...) hobetzeko esku-hartzea behar diren jarduketak eginez, halako moldez non gutxienez letra batean hobetuko baita eraikinaren kalifikazio energetikoa eraikinaren hasierako kalifikazio energetikoarekin alderatuta, zeina karbono dioxidoaren isurien arabera neurtzen den (kg CO<sub>2</sub>/m<sup>2</sup> urtean), energia-efizientzia egiaztatze indarreko prozeduraren arabera.

Kalifikazio energetikoaren hobekuntza hori lortzeko jarduketa mota bat edo zenbait mota erabili ahalgo dira, bai eta jarduketa baten edo batzuen neurri partzialak gauzatu ere.

Eraikinaren energia-ziurtagiria apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuaren (eraikinen energia-efizientzia ziurtatzeko oinarritzeko prozedura onartzen duena) arabera gauzatuko da, onartutako programa informatiko ofizialen bat erabilita. Eraikinaren inguratzaile termikoaren itxitura batean edo batzuetan (fatxada, estalkia, zuloak, etab.) egindako jarduketa integralak soilik izango dira hautagarri, baina ez eraikin bereko etxebizitza edo lokal batean edo batzuetan egindakoak, banaka hartuta.

Gauzatutako ekintzen eta obren eraginkortasuna egiaztatze aldera, etxebizitzaren %10 monitorizatu beharko da, dirulaguntza eskatzen denetik (obrak gauzatu aurretik) eta obrak amaitu ondorengo bi urteetan. Eusko Jaurlaritzaren Eraikuntzaren Kalitate Kontrolerako Laborategiko Arlo Termikoko teknikariek adieraziko dute zer ekipo beharko diren sistemen ustiapenean eta zerbitzuan datuak neurtzeko. Ekipoak instalatu ondoren, neurtutako datuak Eraikuntzaren Kalitate Kontrolerako Laborategira bidaltzeko prestatuta egon beharko dira, han tratatu eta ustiatu ditzaten.

Aipatutako ekipamenduaren eta segimenduaren kostuak diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen barruan egongo dira.

- e) Araudira egokitzea eta zenbait instalazio eguneratzea: saneamendukoak, ur-hornidurakoak, argindarrarenak, telekomunikazioenak, gasarenak eta suteen aurkako segurtasunarenak.

Borondatezkoak izango dira, jabeakideen erkidegoen esku, lehen mailako energiaren kontsumoa murrizteko jarduketa hauek:



- Dauden banakako galdaren ordezkari gas naturaleko errendimendu handiko beste galdara batzuk jartzea.
- Ur bero sanitarioa sortzeko sistema bat instalatzea, eguzki-panel termikoen bidez.
- Biomasa galdara bidezko berokuntzako eta ur bero sanitariooko sistema zentralizatua edo energia berriztagarriko beste sistema bat instalatzea, banakako kontsumoa kontrolatzeko banaketa dutenak.

Jarduketak horiek diruz lagundu ahalko dira, deialdi honen 14. atalean adierazten den moduan.

Era berean, diruz lagunduko dira dagoeneko egindako eta 2017 eta 2018 artean amaitutako jarduketak, baldin eta aurreko ataletan deskribatutako jarduketak badira eta eraginpeko komunitateek jarduketak amaitzen badituzte, eraikina erabat birgaitu arte, dirulaguntzen programa honen indarraldian, aurretik aipatutako a), b), c), d) eta e) ataletan aipatutako jarduera guztiakin.

Betiere, birgaitzeko esku-hartze guztiak bat etorri beharko dira hirigintza-plan aplikagarrietako agindu guztiakin eta dagozkion administrazio-baimenak izan beharko dituzte.

Jarduketak ez badaude lehendik eginda, eta betiere erabateko birgaitzea egiteko proiektuak eta obra zuzentzeaz arduratzen den teknikari taldea kontratatu aurretik, lehiaketa egingo da, gutxienez hiru lizitatzailerekin. Teknikari taldea aukeratzeko batzorde bat osatuko da, honako hauekin: Udaleko ordezkari bat, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzako ordezkari bat eta jabekideen erkidegoko ordezkari bat. Obra proiektuek jaso behar dituzten gutxienezko baldintzak eta kontratuak esleitzeko irizpideak oinarri hauekin doan l. eranskinean jasota daude.

Enpresa esleipenduna kontratatu aurretik ere lehiaketa bat egingo da, gutxienez hiru lizitatzailerekin. Enpresa aukeratzeko batzorde bat osatuko da, honako hauekin: Udaleko ordezkari bat, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzako ordezkari bat eta jabekideen erkidegoko ordezkari bat.

## **5. Zuzeneko emakidaren araubidea, dirulaguntza ebaluatzeko sistemaren bidez.**

Dirulaguntza zuzeneko emakidaren araubidean emango da, jabekideen erkidego bakoitza banaka ebaluatzeko sistemaren bidez.

## **6. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak.**

Dirulaguntza honetara aurkeztu ahalko dira bigarren apartatuan («Dirulaguntzaren xedea») aipatutako higiezinaren jabekideen erkidegoak, ez badagokie Dirulaguntzen Lege Orokorraren (38/2003 Legea) 13. artikuluan eta horrekin bat datorren gainerako araudian ezarritako debekuren bat.

## **7. Dirulaguntzaren zenbatekoa itzultzea, *inter vivos* era boluntarioan erabiltzen denean.**

Emandako laguntzak eta birgaitzeko proiektuaren garapenean ekintza publikoak sortutako gainbalioetan administrazioak izandako partaidetza itzultzea bermatzeko, jasotako dirulaguntzak itzultzeko betebeharra ezartzen da, *inter vivos* eskualdatu badira etxebizitzak edo diruz lagundutako eraikineko higiezinetakako elementuak.



Birgaitzeko dirulaguntzak jaso dituzten higiezinak ezingo dira *inter vivos* era boluntarioan erabili, obraren azken ziurtagiritik 10 urte igaro arte, saltzaileak ez bada aurretiaz egiaztatzen eskualdatu den elementuagatik jasotako dirulaguntzak itzuli dituela, eta itzuleraren unean itzulketa horiek eguneratuta daudela «Itzultzeko oinarri-taulan» jasotako ehunekoen arabera.

Arestian aipaturiko ondorioetarako, ez da eskualdaketatzat hartuko etxebizitza osoa titularkideetako bati esleitzea, ezkontza-bereizteen, dibortzioen edo izatezko bikoteen hausturen ondorioz, eta/edo lehen graduko ahaideen arteko bizikidetzaren hausturen ondorioz.

Etxebizitzen eta lokalen jabeek dirulaguntzaren emakidaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute dagokien Jabetzaren Erregistroan. Administrazio-agiri horren argitan, jabariak baliatzeko mugari dagokion erregistro-idazpena egingo da, hipoteka-legeriarekin bat.

Halaber, dirulaguntza itzuli beharko da obrak gauzatzen ari diren bitartean *inter vivos* eskualdaketa badago, baldin eta etxebizitza hori ez bada titularren ohiko edo betiko helbidea, edo lokalak ez badaude titularren konturako jarduerari atxikita.

Jasotako laguntza irizpide hauen arabera itzuliko da:

- Etxebizitzen titular diren pertsona juridikoei eta norberaren konturako jardueran atxikita ez dauden lokalen titular diren pertsona juridikoei dirulaguntzaren emakidaren ziurtagiriaren % 100 itzuli beharko dute, hala proiektua gauzatzean gertatzen bada (dirulaguntzaren emakida ebatzi ondoren) nola obra-amaierako ziurtagiria eman ondorengo hamar urteetan gertatzen bada.
- Etxebizitzen eta lokalen gainerako titularrek, *inter vivos* eskualdaketa egonez gero, dirulaguntzaren emakidaren ziurtagiriaren balioari dagokionez «Itzultzeko oinarri-taulan» adierazitako ehunkoa itzuli beharko dute; hau da taula:

## Itzultzeko oinarri-taula

ESKUALDATZEKO DATA	ITZULTZE-EHUNEO
Obra egiten ari den bitartean edo lehenengo urtean	100
Bigarren urtean	91
Hirugarren urtean	82
Laugarren urtean	73
Bosgarren urtean	63
Seigarren urtean	53
Zazpigarren urtean	43
Zortzigarren urtean	33
Bederatzigarren urtean	22
Hamargarren urtean	11
Hamargarren urtetik aurrera	0



Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko da jabeakideen erkidegoari emandako laguntza, zeinari aplikatuko baitzaizkio eskualdatutako elementuak komunitatean duen partaidetzari dagokion kuota eta igaro den denborari dagokion ehunekoa (itzulketa-taulan zehaztua).

Itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko dirusarrera izango dira eta betearazpen-bidetik eskatu ahal izango dira.

## **8. Prozedura izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak zein diren adieraziko da.**

Lasarte-Oriako Udalaren Hirigintza Sailak gauzatuko du prozeduraren instrukzioa.

Ebazpena emateko, kontuan hartuko dira aurkeztutako eskabide eta proiektuei buruz aholkulari juridikoak eta sail horretako udal-teknikariek egindako txostenak. Deialdia egin duen organoak esleituko du izapidetzailea, dirulaguntza sustatu duen saileko teknikariren artetik.

Emakidaren ebazpena Lasarte-Oriako Alkatearen esku egongo da.

Onuradunek 15 egun naturaleko epea izango dute dirulaguntzari uko egiteko, ebazpena jakinarazi denetik kontatzen hasita. Onuradunek dirulaguntza onartu dutela ulertuko da, aipatutako epean ez badute berariaz uko egin.

## **9. Eskabideak aurkezteko epea eta tokia.**

Dirulaguntzak lortzeko eskabideak deialdia egin duenari bidali beharko zaizkio, onuradunak edo haren ordezkariak sinatuta, dokumentazio erantsiarekin batera, 2020ko abenduaren 30a baino lehen (egun hori barne).

Eskabideak bulego-ordutegian aurkeztuko dira, helbide honetan: **Kale Nagusia 22, Behea 20160 LASARTE-ORIA.**

## **10. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea.**

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 4 hilabetekoa da, eskabidea aurkezten den datatik zenbatzen hasita.

## **11. Emandako dirulaguntzen publikotasuna.**

Dirulaguntzaren emakidaren ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, beste datu hauekin batera: deialdia, programa, dagokion aurrekontu-kreditua, onuraduna, emandako kopurua eta dirulaguntzaren helburua edo helburuak.

## **12. Dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak.**

Jabeakideen erkidegoaren ordezkariak izapidetu beharko ditu laguntzak; horretarako, eskabide bat aurkeztuko du, horretarako ezarritako ereduari jarraituz (I. ERANSKINA), eta, horrekin batera, agiri hauek aurkeztuko ditu:



- a) Jabekideen erkidegoko presidenteak edo, hala badagokio, erkidegoaren idazkari administratzaileak egindako ziurtagiria, hauek adierazita:
  - o Jabekideen erkidegoaren ordezkariaren izendapena.
  - o Erkidegoak dirulaguntzaren xede diren obrak gauzatzea onartu izanaren erabakia.
- b) Dirulaguntzaren xede den higiezinako elementu guztien erregistroei buruzko ohar sinplea.
- c) Partaidetza-kuotaren arabera eraikineko elementu bakoitzagatik ordaindu beharreko kopurua adierazten duen taula.
- d) Jabekideen erkidegoaren identifikazio fiskaleko kodearen (IFK) fotokopia.
- e) Emandako dirulaguntza sartzeko erabiliko den jabekideen erkidegoaren bankuko kontuaren titulartasunaren ziurtagiria.
- f) Erkidegoak zergekiko eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak beteta dituela egiaztatzen duen ziurtagiriaren fotokopia.
- g) Eraikinaren oraingo egoerari buruzko Ikuskaritza Teknikoko Txostena eta Energia Efizientiaren Ziurtagiria.
- h) Eraikinaren ikuskapen teknikoa idaztearen, gauzatze-proiektua egitearen eta obren zuzendaritza fakultatiboa gauzatzearen ordainsariak. Halaber, etxebizitzak monitorizatzeko kostuen aurrekontua.
- i) Eraikinean egin beharreko jardueren deskribapen xehea duen memoria.
- j) Egin beharreko jarduera guztien gauzatze-proiektuaren aurrekontua, barne hartuta proiektuko obrak egin ondoren egitea aurreikusten den Energia Efizientiaren Ziurtagiria.

### **13. Akatsak zuzentzea eta aurretiko ebaluazioa.**

Organo izapidegilearen esku egongo da eskabideak deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen direla eta aurreko paragrafoan aipatzen diren agiriak aurkeztu direla egiaztatzea; organo horrek zuzenketa eskatu ahal izango du, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 23.5. artikuluari jarraikiz. Eskatzaileak eskabideari uko egin diola ulertuko da, baldin eta ez badu eskatutako dokumentazioa aurkeztu edo ez baditu akatsak zuzendu, gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean.

### **14. Dirulaguntzen zenbatekoa**

Dirulaguntza orokorren emakida indarreko udal-aurrekontuan horretarako ezarritako partidara mugatuta egongo da.

Dirulaguntzen zenbatekoak hauek izango dira:

- a) Eraikinaren Ikuskapen Teknikoko txostena idazteko



Esparruko Eraikinaren Ikuskapen Teknikoko txostenak egiteko kostuaren % 60 lagunduko da diruz.

b) Etxebizitzak monitorizatzeko eta segimendua egiteko

Gauzatutako ekintzen eta obren eraginkortasuna egiaztatze aldera, diruz lagunduko diren etxebizitzaren % 10 monitorizatu beharko da, dirulaguntza ematen denetik (obrak gauzatu aurretik) eta obrak amaitu ondorengo bi urteetan. Eusko Jaurlaritzaren Eraikuntzaren Kalitate Kontrolerako Laborategiko Arlo Termikoko teknikariek adieraziko dute zer ekipo beharko diren sistemen ustiapenean eta zerbitzuan datuak neurtzeko. Ekipoak instalatu ondoren, neurtutako datuak Eraikuntzaren Kalitate Kontrolerako Laborategira bidaltzeko prestatuta egon beharko dira, han tratatu eta ustiatu ditzaten.

Aipatutako etxebizitzaren monitorizazioaren instalazioaren eta segimenduaren % 100 lagunduko da diruz.

c) Proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko.

Dokumentuak idazteko eta obrak zuzentzeko ordainsarien kostuaren (zergak barne) % 60ko oinarritzko laguntza bat emango da, eta horren gehieneko muga honela zehaztuko da: dirulaguntzaren xede den eraikineko etxebizitzaren guztizko kopurua bider 1.000 euro.

Proiektua Kapitulu eta Partidatan egituratuta egon beharko da, Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzaren zerbitzu teknikoek horretarako emandako ereduari jarraikiz.

d) Obrak egiteko:

Igogailua eta/edo arrapala jartzea: itzuli beharrik gabeko dirulaguntza emango da gauzate-obren kontrataren aurrekontuaren % 60 ordaintzeko (zergak barne), igogailuak instalatzeko eta/edo arrapalak egiteko; gehienez ere 72.000 euro emango zaizkio jabeekideen erkidego bakoitzari.

Eraikinaren ingurutzailerako termikoaren eta instalazioen energia-jokabidea hobetzea: kontrataren aurrekontuaren % 60 lagunduko da diruz (zergak barne), etxebizitza bakoitzeko gehienez ere 7.500 euro emanda, banakapen honekin:

- Karbono dioxidoaren igorpenetan, eraikinaren kalifikazio energetikoa energia-efizientzia ziurtatzeko indarrean dagoen prozeduraren arabera letra bat hobetzera bideratutako jarduketei dagokienez, kontrata-aurrekontuaren % 60 lagunduko da diruz (zergak barne), etxebizitza bakoitzeko gehienez ere 4.000 euro emanda.
- Karbono dioxidoaren igorpenetan, eraikinaren kalifikazio energetikoa energia-efizientzia ziurtatzeko indarrean dagoen prozeduraren arabera bi letra hobetzera bideratutako jarduketei dagokienez, kontrata-aurrekontuaren % 60 lagunduko da diruz (zergak barne), etxebizitza bakoitzeko gehienez ere 6.000 euro emanda.
- Aurreko bi esku-hartzeetako baten lehen mailako energia-kontsumoa murrizteko jardueraren bat badago, kontrataren aurrekontuaren % 60 lagunduko da diruz (zergak barne), eta lehenago adierazitako gehieneko zenbatekoa 1.500 euro gehiago izango da etxebizitza bakoitzeko. Jarduketa hauek sartzen dira:
  - ◆ Dauden banakako galdaren ordez gas naturaleko errendimendu handiko beste galdara batzuk jartzea.
  - ◆ Ur bero sanitarioa sortzeko sistema bat instalatzea, eguzki-panel termikoen bidez.



- ◆ Biomasako galdara bidezko berokuntzako eta ur bero sanitarioko sistema zentralizatu edo energia berriztagarriko beste sistema bat instalatzea, banakako kontsumoa kontrolatzeko banaketa dutenak.

## 15. Beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan laguntzak bateragarriak izango dira xede bera duten beste administrazio publiko batzuek edo beste erakunde pribatu edo publiko batzuek emandakoekin.

Bereziki bateragarriak izango dira Udalak igogailuak ezartzeko eta fatxadak berritzeko emandako dirulaguntzekin eta Udalak banakoak diren jabeei Basaundi Bailara auzoko eraikinak birgaitzeko emandako dirulaguntzekin.

Halaber, bateragarriak izango dira eskubideen titularrek banako moduan jaso ditzaketen dirulaguntza hauek:

- Partikularrei emandako laguntzak eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailbururen 2006ko abenduaren 29ko Aginduan (etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzkoa, 2007ko urtarrilaren 25eko EHAA n argitaratua) eta hori ordezkatzeko duen edozein arauditan jasota daudenak, gehienez ere jarduketako kostuaren gehiengoa bete arte.
- Dibertsifikaziorako eta Energia Aurrezteko Institutuaren laguntza-programaren deialdia arautzeko oinarrietan jasotako laguntzak, dauden eraikinen birgaitze energetikorako jarduketak egiteko, gehienez ere energia-efizientziako jarduketako kostuaren gehiengoa bete arte.
- I+G+B programetarik eta Europako programetarik lor daitezkeen beste laguntza batzuk.

Ez da bateragarria izango Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak jabeekideen erkidegoen alde emandako beste laguntzekin.

## 16. Ordainketak.

Dirulaguntzak prozedura honen arabera ordainduko dira:

- a) Lehenengo ordainketan, dirulaguntzaren zenbatekoaren % 15 ordainduko da, ordainketa-eskabidea aurkeztu ondoren, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta agiri hauek aurkeztu beharko dira:
  - Eraikinaren Ikuskapen Teknikoko txostena egitearen eta oinarriko proiektua eta obra gauzatzekoa idaztearen zenbatekoa ordaintzen duten fakturak. Ez dira ordainduko egiaztatu direnak baino kopuru handiagoak.
  - Higiezinako etxebizitza guztien jabariak baliatzeko mugari dagokion erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatzearen ziurtagiria. (Ez badira ziurtagiri guztiak aurkeztu, puntuak ezarritakoa beteko da).
- b) Bigarren ordainketan, dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 ordainduko da, eskabidea aurkeztu ondoren, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta agiri hauek aurkeztu beharko dira:





- Obra-gauzatzeaz arduratzen den enpresarekin edo enpresekin egindako kontratuaren edo kontratuen fotokopia; kontratu horrek diruz lagunduko diren obra guztiak gauzatuko direla bermatu behar du.
  - Obra Hasieraren Aktaren kopia, jabeakideen erkidegoko presidentek, eraikuntza-enpresako ordezkariak eta zuzendaritza fakultatiboak sinatuta.
- c) Hirugarren ordainketan, dirulaguntzaren zenbatekoaren % 40 ordainduko da, eskabidea aurkeztu ondoren, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta agiri hauek aurkeztu beharko dira:
- Obra gauzatzeko zenbatekoaren % 50 gutxienez ordaintzen duten fakturak. Faturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- d) Laugarren ordainketan, dirulaguntzaren zenbatekoaren % 15 ordainduko da, eskabidea aurkeztu ondoren, horretarako dagoen ereduaren arabera, eta agiri hauek aurkeztu beharko dira:
- Obra gauzatzeko zenbatekoaren % 75 gutxienez ordaintzen duten fakturak. Faturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.
- e) Falta den zenbatekoa justifikazio-kontua egiaztatu eta onartu ondoren ordainduko da, hurrengo artikulua adierazten duen moduan.

Ez dira ordainduko egiaztatu direnak baino kopuru handiagoak, faseen arabera.

## **17. Onuradunak eskuratutako dirulaguntza hasieran jarritako helbururako erabiltzen ari dela justifikatzeko dituen epea eta modua.**

Obrak gauzatzeko gehieneko epea urtebetekoa izango da, obra-lizentziaren esleipena jakinarazi denetik hasita.

Onuraduna dirulaguntzaren hasierako xedea betetzen ari direla justifikatzeko eta jasotako funtsak aplikatzeko epea bi hilabetekoa izango da, aurreko paragrafoan adierazitako datatik kontatzen hasita, eta inola ere ezingo da 2021ko azaroaren 30ean baino geroago izan.

Nolanahi ere, laguntza eskatu dutenei egotzi ezin zaien kausa justifikatu bat dela kausa obraren hasiera edo gauzatzea atzeratzen bada, epemuga luzatzea eskatu ahal izango da, ezarritako epea amaitu ondoren.

Justifikatzeko modua justifikazioko kontu baten bidez izango da eta agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Justifikazio-kontuaren jakinarazpena, horretarako dagoen ereduaren arabera.
- Obra amaitzearen ziurtagiria, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinatua.
- Eraikinaren Ikuskapen Teknikoko txostenean identifikatutako patologiak eta kalteak konpontzearen ziurtagiria.



- Amaitutako obraren Energia Efizientiaren Ziurtagiria.
- Obra gauzatzearen fakturak, lehendik aurkeztu ez direnak.
- Erkidegoko presidenteak, idazkariak edo administrariak egindako dokumentua, non jasoko den zenbateko ordainketak egin dituen erkidegoko kide bakoitzak.
- Egindako obren argazkiak.
- Erkidegoko presidenteak, idazkariak edo administrariak egindako dokumentua, zeinak eskatutako eta/edo emandako beste dirulaguntza batzuk ziurtatuko dituen.

## **18. Dirulaguntzen zenbatekoa itzultzea, ezarritako baldintzak betetzen ez badira.**

Ez bada aurkezten higiezinako etxebizitza baten edo batzuen jabariaz baliatzeko mugari dagokion erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatzearen ziurtagiria, emandako dirulaguntza murriztuko da, etxebizitza horiek jabetza horizontalaren banaketan higiezinaren guztizkoan duten partaidetza-kuotaren pareko ehunekoan.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan ezarritako terminoetan, dirulaguntzen emakidagatik ezarritako baldintza bat edo batzuk ez badira betetzen, edo epez kanpo betetzen badira, baldintza guztiak edo epea betetzea erabakigarria bada lortu nahi den helburu publikorako, eskubide osoa galduko da eta, hala badagokio, itzuli egin beharko da.

Administrazioko zerbitzuek egiaztapena edo finantza-kontrola egitean, agerian jartzen bada egindako gastu guztiak edo batzuk ez direla ordaindu, dirulaguntza jaso ondoren, dagozkion hartzekodunek galdagarri izanik, laguntza itzultzeko eskatuko da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuz, eta, horretarako, ordaindu ez diren gastuekiko proportzioan itzuli beharko da dirulaguntza.

## **19. Dirulaguntzen inguruko administrazioko arau-hausteak eta zehapenak. Zehapen-prozedura.**

Arlo honetan, LASARTE-ORIAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORRAREN VIII KAPITULUAN ezarritakoa beteko da.

## **20. Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen duen adieraztea.**

Ebazpenak administrazio-bidea amaitzen du, eta horren aurka berraztertze errekurtsoa jar daiteke hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso denetik kontatzen hasita, ebazpena eman duen organoan, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, bi hilabeteko epean, Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian, Atotxa Jauregia, Kalkutako Teresa Plaza 1.

## **21. Datu pertsonalak babestea.**


Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztean, erakunde eskatzaileak aditzera ematen du deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela, eta erabat onartzen dituela. Halaber, aditzera ematen du eskabidean dauden datu pertsonalak bere baimenarekin jasoko direla eta baimena ematen duela datu horiek



**LASARTE-ORIA**

UDALA-AYUNTAMIENTO

automatikoki tratatzeko eta Lasarte-Oriako Udalaren fitxategi baimenduetan sartzeko; era berean, baimena ematen du datu horien erabilera udalaren kudeaketara mugatu dadin, eta beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga edo komunikatu ahal izango zaizkie, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legean (abenduaren 13ko 15/1999 Legea) ezarritako baldintzetan.



## I. ERANSKINA (ESKABIDEA)

### JABEKIDEEN ERKIDEGOAREN ORDEZKARIAK BETE BEHARREKO ALEA

**DEIALDIA**

ERKIDEGOEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO ESKABIDEA, BASAUNDI BAILARA AUZOKO ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO

### Jabekideen erkidegoa edo komunitatea / Comunidad de propietarios/as

Izena  
Nombre

IFZ...  
NIF...

**Diru-laguntza jasotzeko kontua (IBAN: 24 digitu) / Cuenta para cobro de subvención (IBAN 24 dígitos)**

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Banketxearen zigilua / Sello entidad bancaria

### JABEKIDEEN ERKIDEGOAREN ORDEZKARIA

IZENA	1. ABIZENA	2. ABIZENA	NAN
HELBIDEA / DOMICILIO			
HERRIA	PK	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA

**Aurkezten den dokumentazioa:**

- a) Jabekideen erkidegoko presidentea edo, hala badagokio, erkidegoaren idazkari administratzaileak egindako ziurtagiria, non hau adieraziko den:
- b) Jabekideen erkidegoaren ordezkariaren izendapena.
  - o Erkidegoak dirulaguntzaren xede diren obrak gauzatzeko onartu izanaren erabakia.
  - o Dirulaguntzaren xede den higiezinako elementu guztien erregistroei buruzko ohar sinplea.
- c) Partaidetza-kuotaren arabera eraikineko elementu bakoitzagatik ordaindu beharreko kopurua adierazten duen taula.
- d) Jabekideen erkidegoaren identifikazio fiskaleko kodearen (IFK) fotokopia.
- e) Emandako dirulaguntza sartzeko erabiliko den jabekideen erkidegoaren bankuko kontuaren titulartasunaren ziurtagiria.
- f) Eraikinaren oraingo egoerari buruzko Ikuskaritza Teknikoko Txostena eta Energia Efizientziaren Ziurtagiria.
- g) Eraikinaren ikuskapen teknikoak idaztearen, gauzatzeko proiektua egitearen eta obrak zuzendaritza fakultatiboak gauzatzeko ordainsariak. Halaber, etxebizitzak monitorizatzeko kostuen aurrekontua.
- h) Eraikinean egin beharreko jardueren deskribapen xehea duen memoria.



- i) Egin beharreko jarduera guztien gauzatzeko-proiektuaren aurrekontua, barne hartuta proiektuko obrak egin ondoren egitea aurreikusten den Energia Efizientziaren Ziurtagiria.

Data eta sinadura

## DATU PERTSONALEN BABESA

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera, honen bidez adierazten dizuguna da dokumentu honetan eman dizkiguzun datu pertsonalak fitxategi baten jasoko direla eta horren arduraduna Lasarte-Oriako udala dela. Fitxategi hori, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi zaio eta datuen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak zaizkion segurtasun neurri guztiak hartuta dauzka.

Dokumentu hau sinatzeak esan nahi du eskaera egin duena/ordezkarria jakinarean gainean geratu dela eta baimena ematen duela bere datuak aipatutako helburu horrekin tratatzeko.

Hauxe ekartzen dizugu gogora: zuk emandako datuak eskuratzeko aukera duzula, eta nolahi ere, Legeak ezarritako eran, baita datuok zuzentzeko, aurkatzeko edo ezeztatzeko aukera ere; horretarako, Lasarte-Oriako udaleko Segurtasun Arduradunari lehen esandako helbide horretara idatzizko komunikazio bat bidali behar diozu datu hauekin: lizen-abizenak, jakinarazpenetarako helbidea, eskatzen dena, data, interesdunaren sinadura eta fitxategiaren izena.

Halaber, kontsultatu nahi izanez gero "Jardunbide Egokien Eskuliburua Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetarako" delakoa webgune hauetan duzu: [www.eudel.net](http://www.eudel.net) eta [www.avpd.es](http://www.avpd.es).

## PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

Le informamos que de conformidad con lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, los datos de carácter personal obtenidos en el presente documento serán recogidos en un fichero del que es responsable el Ayuntamiento de Lasarte-Oria. Este fichero, ha sido notificado a la Agencia Vasca de Protección de Datos y cuenta con las medidas de seguridad necesarias para garantizar la total seguridad de los datos.

La suscripción de este documento implica que el/la solicitante/representante resulta informada y da su consentimiento al tratamiento de sus datos para la finalidad mencionada.

Le recordamos la posibilidad de acceder a los datos facilitados, así como de solicitar, en su caso, su rectificación, oposición o cancelación, en los términos establecidos por la Ley, dirigiendo una comunicación escrita al Responsable de Seguridad del Ayuntamiento de Lasarte-Oria a la dirección antes indicada con estos datos: nombre-apellidos, domicilio a efectos de notificaciones, petición en que se concreta la solicitud, fecha, firma de la persona interesada y nombre del fichero.

Asimismo, puede consultar el "Manual de Buenas Prácticas de Protección de Datos Personales para entidades locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco" en las siguientes direcciones de Internet: [www.eudel.net](http://www.eudel.net) y [www.avpd.es](http://www.avpd.es).



## II. ERANSKINA (1. ORDAINKETAREN ESKABIDEA)

### JABEKIDEEN ERKIDEGOAREN ORDEZKARIAK BETE BEHARREKO ALEA

#### **DEIALDIA**

ERKIDEGOENTZAKO DIRULAGUNTZEN EMAKIDA, BASAUNDI BAILARA AUZOKO ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO

#### **ATARIA**

BASAUNDI BAILARA zk.: \_\_\_\_\_

IFK

#### **JABEKIDEEN ERKIDEGOAREN ORDEZKARIA**

IZENA	1. ABIZENA	2. ABIZENA	NAN
HELBIDEA / DOMICILIO			
HERRIA	PK	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA

Aurkezten den dokumentazioa:

- Eraikinaren Ikuskapen Teknikoko txostena egitearen eta oinarrizko proiektua eta obra gauzatzekoa idaztearen zenbatekoa ordaintzen duten fakturak.
- Higiezinako etxebizitza guztien jabariaz baliatzeko mugari dagokion erregistro-idazpena Jabetza Erregistroan inskribatzearen ziurtagiria.

Data eta sinadura



### III. ERANSKINA (2. ORDAINKETAREN ESKABIDEA)

#### JABEKIDEEN ERKIDEGOAREN ORDEZKARIAK BETE BEHARREKO ALEA

##### **DEIALDIA**

ERKIDEGOENTZAKO DIRULAGUNTZEN EMAKIDA, BASAUNDI BAILARA AUZOKO ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO

##### **ATARIA**

BASAUNDI BAILARA zk.: _____	IFK
-----------------------------	-----

##### **JABEKIDEEN ERKIDEGOAREN ORDEZKARIA**

IZENA	1. ABIZENA	2. ABIZENA	NAN
HELBIDEA / DOMICILIO			
HERRIA	PK	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA

Aurkezten den dokumentazioa:

- Obra-gauzatzeaz arduratzen den enpresarekin edo enpresekin egindako kontratuaren edo kontratuen fotokopia; kontratu horrek diruz lagunduko diren obra guztiak gauzatuko direla bermatu behar du.
- Obra Hasieraren Aktaren kopia, jabe-kideen erkidegoko presidentek, eraikuntza-enpresako ordezkariak eta zuzendaritza fakultatiboak sinatuta.

Data eta sinadura



## IV. ERANSKINA (3. ORDAINKETAREN ESKABIDEA)

### JABEKIDEEN ERKIDEGOAREN ORDEZKARIAK BETE BEHARREKO ALEA

#### **DEIALDIA**

ERKIDEGOENTZAKO DIRULAGUNTZEN EMAKIDA, BASAUNDI BAILARA AUZOKO ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO

#### **ATARIA**

BASAUNDI BAILARA zk.: _____	IFK
-----------------------------	-----

#### **JABEKIDEEN ERKIDEGOAREN ORDEZKARIA**

IZENA	1. ABIZENA	2. ABIZENA	NAN
HELBIDEA / DOMICILIO			
HERRIA	PK	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA

Aurkezten den dokumentazioa:

- Obra gauzatzeko zenbatekoaren % 50 gutxienez ordaintzen duten fakturak. Faturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako dagokion obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Data eta sinadura





## V. ERANSKINA (4. ORDAINKETAREN ESKABIDEA)

### JABEKIDEEN ERKIDEGOAREN ORDEZKARIAK BETE BEHARREKO ALEA

#### **DEIALDIA**

ERKIDEGOENTZAKO DIRULAGUNTZEN EMAKIDA, BASAUNDI BAILARA AUZOKO ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO

#### **ATARIA**

BASAUNDI BAILARA zk.: _____	IFK
-----------------------------	-----

#### **JABEKIDEEN ERKIDEGOAREN ORDEZKARIA**

IZENA	1. ABIZENA	2. ABIZENA	NAN
HELBIDEA / DOMICILIO			
HERRIA	PK	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA

Aurkezten den dokumentazioa:

- Obra gauzatzeko zenbatekoaren % 75 gutxienez ordaintzen duten fakturak. Faturekin batera, zuzendaritza fakultatiboak emandako dagokion obra-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Data eta sinadura



## VI. ERANSKINA

### AZKEN ORDAINKETAREN ETA JUSTIFIKAZIOKO KONTUAREN ESKABIDEA

#### DEIALDIA

ERKIDEGOENTZAKO DIRULAGUNTZEN EMAKIDA, BASAUNDI BAILARA AUZOKO ETXEBIZITZAK BIRGAITZEKO

#### ATARIA

BASAUNDI BAILARA zk.: \_\_\_\_\_

IFK

#### JABEKIDEEN ERKIDEGOAREN ORDEZKARIA

IZENA	1. ABIZENA	2. ABIZENA	NAN
HELBIDEA / DOMICILIO			
HERRIA	PK	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA

Behean sinatzen duenak, zeinaren datuak adierazi diren, Lasarte-Oriako Udalari egindako gastuaren eta jardueraren justifikazioa ematen dio, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14.1.b) eta 14.2. artikuluetan ezarritakoa betetze aldera eta 30.2. artikuluekin lotuta. Justifikazioak dokumentu hauek ditu:

- Obra amaitzearen ziurtagiria, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinatua.
- Eraikinaren Ikuskapen Teknikoko txostenean identifikatutako patologiak eta kalteak konpontzearen ziurtagiria.
- Amaitutako obraren Energia Efizientziaren Ziurtagiria.
- Obra gauzatzearen fakturak, lehendik aurkeztu ez direnak.
- Erkidegoko presidentek, idazkariak edo administrariak egindako dokumentua, non jasoko den zenbateko ordainketak egin dituen erkidegoko kide bakoitzak.
- Egindako obren argazkiak.
- Erkidegoko presidentek, idazkariak edo administrariak egindako dokumentua, zeinak eskatutako eta/edo emandako beste dirulaguntza batzuk ziurtatuko dituen.

Data eta sinadura